



**Organoa:** Udalbatza

**Deialdia:** Lehenengoa

**Bilera mota:** Arrunta

**Eguna:** 2025.09.25

**Ordua:** 17:00

**Tokia:** Herriko Etxeko areto nagusia

**Bertaratuak:**

- ALKATEA: Saturnino Larralde Ibarrola, EH Bildu.
- Itziar Arotzena Bergara, EH Bildu.
- Igor Ugalde Salazar, EH Bildu.
- Julen Oskoz Elizondo, EH Bildu.
- Leire Mitxelena Gamio, EH Bildu.
- Andoni Mitxelena Danboriena, EH Bildu.
- Ana Maeztu Villanueva, EH Bildu.

**Bertaratu ez direnak:**

Inor ere ez.

**Idazkaria:** Nagore Madariaga Iriarte

**AZTERGAIAK:**

1. Aurreko aktaren irakurketa eta, bidezkoa balitz, onespena.
2. Artikutza inguruko jabetza identifikatu gabeko pottokak animalia basatiak deklaratzeko espedientearen ebaztea.
3. Katastroko Balorazio Ponentzia berrikuspenaren proiektua. Batzorde mistoko kideen izendapena.
4. 2025. urtean Bortzirietako igerilekuetako bonoak ordaintzeko dirulaguntza deialdiaren onespena.
5. Bortzirietako Zerbitzu Mankomunitateko Batzar Orokorrean Arantzako Udalak izanen dituen ordezkariak izendatzea.
6. Jose Miguel Errandonea Ordoquik sustaturiko 5 poligonoko 823 lurzatiko xehetasun azterketari behin betiko onespena.
7. Alkate Ebazpenak.
8. "Landa eremuko emakumeak, Nafarroako politikaren bazterretik erdigunera" adierazpen instituzionala. → *Aparteko egoera dela eta, osoko bilkura honetan gai ordenara gehituta.*
9. Eskerak eta galderak.

**1. AURREKO AKTAREN IRAKURKETA ETA, BIDEZKOA BALITZ, ONESPENA.**

2025eko abuztuaren 7ko osoko bilkura arrunteko akta AHO BATEZ ONETSI DA.



## **ARANTZAKO UDALA**

### **2. ARTIKUTZA INGURUKO JABETZA IDENTIFIKATU GABEKO POTTOKAK ANIMALIA BASATIAK DEKLARATZEKO ESPEDIENTEA EBAZTEA.**

Idazkariak azaldu du Arantzako Udalak 2025eko uztailaren 3an egindako osoko bilkura arruntean erabaki zela Artikutza inguruko jabetza identifikatu gabeko pottokak animalia basatiak deklaratzeko espedientea hastea.

2025eko uztailaren 18ko alkatea Bando bidez Artikutzako pottokak biltzeko agindua argitaratu zen. Bandoa 20 egun baliodunez egon zen jendaurrean 2025eko uztailaren 21etik abuztuaren 19ra (biak barne). Halaber, Nafarroako Gobernuko Basozainarekin solastu ostean ikusi da emandako epean ez direla pottokak bildu.

Ondorioz, da Nafarroako Baso Ondarea Babestu eta Garatzeari buruzko abenduaren 31ko 13/1990 Foru Legea garatzeko Mendien erregelamendua onartzen duen otsailaren 17ko 59/1992 Foru Dekretuko 126.3. artikuluan xedaturikoaren arabera, Arantzako Udalak abere horiek basatiak deklaratu beharko ditu. Akordio hori Basoak Kudeatzeko Atalera eraman beharko da, abaildura baimena eman dezan.

Osoko bilkurak AHO BATEZ ERABAKI DU:

- 1.- Artikutza inguruko jabetza identifikatu gabeko pottokak animalia basatiak direla deklaraztea.
- 2.- Akordio hau, dagokion espedientearekin batera, Basoak Kudeatzeko Atalera helaraztea, abaildura baimena eman dezan.

### **3. KATASTROKO BALORAZIO PONENTZIA BERRIKUSPENAREN PROIEKTUA. BATZORDE MISTOKO KIDEEN IZENDAPENA.**

Idazkariak azaldu du Arantzako Udalak 2025eko abuztuaren 7an egindako bilkura arruntean erabaki zuela Arantzako Katastroko Balorazio Ponentziaren berrikuspenaren proiektua hasiera batez onartzea.

Horrela bada, 2025eko abuztuaren 14ko 162. zk. Nafarroako Aldizkari Ofizialean proiektua jendaurrean paratzeko iragarkia argitaratu zen eta horrela egon zen abuztuaren 18tik irailaren 12ra (biak barne). Jendaurreko epean ez ziren iradokizun edo alegaziorik aurkeztu.

Ondorioz, Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta Katastroei buruzko azaroaren 21eko 12/2006 Foru Legearen 36.4 artikuluan xedaturikoaren arabera Arantzako Udalak Batzorde Mistoan eratzeko eskatuko du eta egindako jarduketa guztiak Zerga Ogasunari bidaliko dizkio. Horri dagokionez, artikuluko bereko 3. puntuan zehaturikoaren arabera, Batzorde Mistoan Arantzako Udalaren ordezkari bezala aritzeko 3 kide izendatu beharko ditu.

Osoko bilkurak AHO BATEZ ERABAKI DU:

- 1.- Batzorde Mistoan ariko diren Arantzako Udalaren ordezkari izendatzea hurrengoak:
  1. Saturnino Larralde Ibarrola, Arantzako Udaleko alkatea.
  2. Leire Mitxelena Gamio, Arantzako Udaleko zinegotzia.
  3. Andoni Mitxelena Danboriena, Arantzako Udaleko zinegotzia.



2.- Katastroko Balorazio Ponentziaren berrikuspenaren proiektuaren espedientea Nafarroako Gobernuko Zerga Ogasunari helaraztea, dagozkion ondorioak izan ditzan.

#### **4. 2025. URTEAN BORTZIRIETAKO IGERILEKUETAKO BONOAK ORDAINTZEKO DIRULAGUNTZA DEIALDIAREN ONESPENA.**

Idazkariak 2025. urtean Bortziritako udal igerilekuetako bonoak ordaintzeko dirulaguntza deialdiaren oinarriak azaldu ditu.

Era berean, dirulaguntza deialdia egiteko Dirulaguntza Orokorrei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3. artikuluan xedaturikoa jarraiki egin dela azaldu du. Horrela bada, 17.3.b) artikuluan xedaturikoaren arabera, BDNS bidetik deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dela adierazi du.

Osoko bilkurak AHO BATEZ ERABAKI DU:

- 1.- 2025. urtean Bortziritako udal igerilekuetako bonoak ordaintzeko dirulaguntza deialdia onestea.
- 2.- Deialdiaren oinarriak BDNS bidetik Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.
- 3.- Deialdiaren nondik norakoak Arantzako Udalak hala deritzon hedabideetan zabaltzea, bizilagun orok horren berri izan dezan.

#### **5. BORTZIRIETAKO ZERBITZU MANKOMUNITATEKO BATZAR OROKORREAN ARANTZAKO UDALAK IZANEN DITUEN ORDEZKARIAK IZENDATZEA.**

Idazkariak azaldu du Arantzako Udaleko osoko bilkurak 2025eko uztailaren 3an egindako bilkura arruntean aho batez erabaki zuela behin betiko onartzea Euskara eta Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak desegitea eta berdintasun arloko lankidetzaren hitzarmena bertan behera uztea, zein Hiri Hondakin Solidoak kudeatzeko Mankomunitatea eraldatu eta berregituratzea, Bortziritako Zerbitzu Mankomunitatea deiturikoan.

Erabakia 2025eko abuztuaren 14ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean (162. zk.) argitaratu zen.

Kontuan hartuta Bortziritako Zerbitzu Mankomunitatearen Estatutuetako 11. eta 12. artikuluek ezartzen dutela Arantzako Udalak 2 kide ordezkari dagozkiola Mankomunitatearen Batzar Orokorrean, osoko bilkuraren erabakiz izendatuta, dagozkien ordezkoekin batera.

Osoko bilkurak AHO BATEZ ERABAKI DU:

- 1.- Ondoren aipatzen diren zinegotziak izendatzea Bortziritako Zerbitzu Mankomunitateko Batzar Orokorrean Arantzako Udala ordezkatzeko:
  1. Saturnino Larralde Ibarrola.
  2. Leire Mitxelena Gamio.



## **ARANTZAKO UDALA**

2.- Arantzako Udaleko zinegotzi hauek izendatzea Bortzirietako Zerbitzuen Mankomunitateko Batzar Orokorrean haren ordezkari izateko, bokal titularra ez dagoenean Batzar Orokorreko kideak ordezkatu ahal izateko:

1. Julen Oskoz Elizondo.
2. Itziar Arotzena Bergara.

3.- Izendapen honek 2025eko abenduaren 31ra arteko ondorioak izanen ditu, eta Bortzirietako Zerbitzu Mankomunitateko organoak eratzera mugatuko da, organo horiek 2026ko ekitaldiko aurrekontuak onartzeko administrazio-espeditentak izapidetzeko erabakiak, ekitaldi horri dagozkion zerga-ordenantzak eta dagokion plantilla organikoa hartu ahal izan ditzaten, Bortzirietako Zerbitzu Mankomunitatearen jardueren hasiera 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera bermatu ahal izateko.

4.- Izendapen honek, ahalmen osoz eta mugarik gabe, 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera, Bortzirietako Zerbitzuen Mankomunitatearen Estatutuetan jasotako epea izanen du.

5.- Akordio hau jakinaraztea Bortzirietako Zerbitzuen Mankomunitateari, bere ezaguera eta ondorioetarako.

### **6. JOSE MIGUEL ERRANDONEA ORDOQUIK SUSTATURIKO 5 POLIGONOKO 823 LURZATIKO XEHETASUN AZTERKETARI BEHIN BETIKO ONESPENA.**

Idazkariak azaldu du uztailaren 31ko 121/2025 Alkate Ebazpen bidez hasierako onespena eman zitzaiola Jose Miguel Errandonea Ordoquik 5. poligonoko 823. lurzatian sustaturiko xehetasun azterketari.

Horrela bada, hasierako onespeneren iragarkia 2025eko abuztuaren 12ko 166. zk. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Jendaurreko epean alegaziorik aurkeztu ez denez, idazkariak azaldu du Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen Testu bategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 74. eta 79.1. artikuluen arabera, behin betiko onespena eman daitekeela xehetasun azterketari ondotik Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko.

Osoko bilkurak AHO BATEZ ERABAKI DU:

1.- Jose Miguel Errandonea Ordoquik sustaturiko 5. poligonoko 823. lurzatiko xehetasun azterketa behin betiko onestea.

2.- Behin betiko onespeneren iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, dagokion xehetasun azterketarekin batera.

3.- Behin betiko onetsitako xehetasun azterketaren espedientea lurraldearen antolamenduaren eta hirigintzaren arloan eskumena duen departamentuari helaraztea.

4.- Akordio hau sustatzaileari jakinaraztea, bere ezaguera eta ondorioetarako.



## **7. ALKATE EBAZPENAK.**

2025eko 127tik 141era Alkate Ebazpenak azaldu eta AHO BATEZ BERRETSI EGIN DIRA.

*Jarraian, osoko bilkurak AHO BATEZ ERABAKI DU Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 91.4. artikuluan xedaturikoari jarraiki, ondorengo puntua gaurko osoko bilkurak gai ordenan sartzea:*

## **8. "LANDA EREMUKO EMAKUMEAK, NAFARROAKO POLITIKAREN BAZTERRETIK ERDIGUNERA" ADIERAZPEN INSTITUZIONALA.**

Osoko bilkurak AHO BATEZ ondorengo adierazpen instituzionalarekin bat egitea onartu du:

### **Landa eremuko emakumeak, Nafarroako politikaren bazterretik erdigunera**

Nafarroako toki- eta lurralde-entitateak landa-eremuko herri guztiek osatzen dituzte, eta, horietatik guztietatik, bertan bizi diren emakumeen ahotsa entzutea nahi dugu, gure lurraldeen orainaldirako eta etorkizunerako ezinbestekoak izan direlako, eta izaten jarraitzen dutelako.

2025eko Landa Eremuko Emakumeen Egun honetan, erabakiak hartzeko haien lekua eskatzen dugu, politika publikoak diseinatzeko eta aplikatzeko moduak oraindik ere ez baititu aintzat hartzen haien errealitateak, beharrak eta ekarpenak. Landa eremuko herriak ez dira bigarren mailako tokiak, baizik eta emakumeak bizkarrezur dituzten ekosistemak. Ohartarazi dutenez, hirigunearen eta hirigunearen logikak eta logika patriarkalak, baliabideak eta zerbitzuak biltzen ditu hirietan, landa-eremukoak baztertuz, eta emakumeei bereziki eragiten dieten egiturazko desberdintasunak sortuz. Izendatzen ez dena ez da existitzen, eta ikusten ez dena, ez da zaintzen.

Landa-eremuko emakumeek diskriminazio-modu askori egiten diete aurre: emakumeak izateagatik, herrietan bizitzeagatik, eta gurutzatzen diren beste aldagai batzuegatik (adina, klasea, jatorria, dibertsitate funtzionala, etab.). Horrez gain, bizi-baldintzak desberdinak eta zailagoak dira landa-eremuan: enplegua, etxebizitza, garraioa... Gainera, ordaindu gabeko zaintza-lanen neurritz kanpoko galkarga emakumeen gain geratzen da, eta bizitza- eta lan-aukerak, lidergoa eta parte-hartzea mugatzen ditu. Jakina, estereotipo patriarkalak ere badute beren zeregina: emakumeak herrietan "laguntzailatzat" hartzen dira, baina ez jabe, ekoizle, kudeatzaile edo buruzagi legitimoatza.

Nafarroako emakumeen % 28k unibertsitate-ikasketak ditu (gazteen artean % 46k), eta gizonen % 20,1ek. Hala ere, emakumeen soldatak, batez beste, % 20 txikiagoak dira. Emakumeen % 9,4k lanbide zientifikoetan, teknikoetan edo espezializatueta egiten du lan, eta % 6,1ek nekazaritzan. Horrek esan nahi du gaitasun-aniztasun handia dagoela eta talentu hori guztia aitortu eta erabat aprobetxatu behar dela. Hala ere, nekazaritza-ustiatagietako titularren % 28 baino ez dira emakumeak, eta horietatik % 17 baino ez dira ustiatagiko buru.

Herrietako emakumeen testuingurua zailtzen duten beste testuinguru batzuk ere badaude: landa-eremuko maskulinizazioa, zahartzea eta despopulazioa emakumeentzako aukera faltarekin zuzenki lotuta daude, bereziki emakume gazteentzat. Eta indarkeria matxista herrietan badago, eta larriagotu egiten da isolamenduegatik eta baliabide publiko irisgarri eta espezifikoen faltagatik.



# ARANTZAKO UDALA

Ildo horretan, Berdintasunari buruzko 17/2019 Foru Legea eta Nafarroako Berdintasunerako Plan Estrategikoa, Landa Eremuko Emakumeen Estatutua sortzea aurreikusten dute, berau funtsezkoa izanik ekitatean aurrera egiteko, eta haien funtsezko zeregina aitortua izateko.

Argi dago politika publiko eta programa askok ez dituztela kontuan hartzen ez landa-ikuspegia, ezta genero-ikuspegia; hirietarako pentsatutako legeak, arauak edo ekimenak direlako, eta, horren ondorioz, garrantziarik gabekoak, eskasak eta askotan herrientzako kaltegarriak izan daitezke.

Horregatik, Nafarroako toki eta lurralde entitateek, Landa Eremuko Emakumeen Egunean, premiazkoa eta beharrezkoa ikusten dugu helburu hauek lantzea:

1. **Eredu hiri-zentriko eta patriarkala gainditzea:** plangintza berriz pentsatzea lurralde-logika orekatu eta inklusibo batetik abiatuta, lurralde guztiak eta emakume guztiak Nafarroaren garapenaren funtsezko zati gisa aitortuko dituen.
2. **Politika publikoetan genero-ikuspegia eta ikuspegi interseksionala txertatzea:** legeak genero-ikuspegiarekin diseinatzea eta abian jartzea, emakumeen herrietan iraunkortasuna eta autonomia izan dezaten bermatuz. Hori bereziki garrantzitsua da landa-eremuari, despopulazioari, berdintasunari, iraunkortasunari edo lurralde-kohesioari buruzko arauetan.
3. **Landa-eremuko emakumeak eta emakumeen elkarrekin garapenaren eragiletzat aitortzea:** kulturen eta bizitza komunitarioan, elikadura-subiranotasunean, jakintzen transmisioan eta lan erreproduktiboan duten eginkizun estrategikoa baloratzea.
4. **Eskualde guztietan oinarrizko eskubideak bermatzea:** zerbitzu publiko egokituak eta kalitatezkoak (osasuna, hezkuntza, zaintzak, etxebizitza, konektibitatea, garraioa, kultura, parte-hartze politikoa), genero-indarkeriaren aurrean baliabide irisgarriak barnebilduz.
5. **Landa eremuan modu bidezkoan inbertitzea:** ezinbestekoa da landa-eremuak behar bezala finantzatzea. Berdintasunaz hitz egitea ez da nahikoa: sustatu egin behar da, herri bakoitzean, erabaki bakoitzean, aurrekontu bakoitzean.

Eta hori guztia agenda feministarekiko eta landa-agendarekiko konpromisotik abiatuta, lurralde bakoitzaren errealitatearen arabera. Izan ere, eredu urbano-zentrikoa gainditzea eta genero-ikuspegiarekin gainditzea demokraziaren, justiziaren eta etorkizunaren kontua da. Emakumerik gabe ez dagoelako landa-eremurik, eta landa-eremurik gabe ez dagoelako etorkizunik.

## 9. ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez dira egiten.

Bertze aztergairik izan gabe, 18:15 direnean, alkateak bilera bukatutzat eman du, eta nik, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.

ALKATEA,

Ziurtatzen dut  
IDAZKARIA,

Saturnino Larralde Ibarrola

Nagore Madariaga Iriarte